

**Bezeroen negozioak** izan duen jarduera bizia eta **finantza-produktuen kontratazioak** lorturiko eritmo ona erabakigarriak izan dira emaitzotan

## **Kutxabankek 254,2 irabazia lortu du hirugarren hiruhilekoan, %10,1 gehiago**

- **Bezeroen negozioak % 1,5 altzarazi du Oinarriko Marjina, interes tipoek negatiboan jarraitu arren**
- **Mailegu hipotekario berrien kontratazioa goia jotzen jarraitzen du eta %21,6 hazi da, merkatua baino askoz gehiago, eta %20,9 kontsumorako maileguak**
- **ETE-en aktibo zirkulatzailerako finantzazioa %12,6 hazi da**
- **%5,2 murriztu dira administrazio gastuak, eta saneamenduetarako beharrek murrizten jarraitu dute**
- **Zalantzako aktiboak 426 milioi eurotan txikitu dira, eta berankortasun maila %4,41ekoa da, alorreko onenetakoa**

**2018ko urriaren 31n.** Kutxabank Taldeak **254,2 milioi** euroko irabazi garbia izan du urteko hirugarren hiruhilekoan, iaz garai berean baino **%10,1** handiagoa, eta Cajasurren ekarpen positiboa **20,3 milioi** eurokoa izan da.

Emitza hau inguru **makroekonomikoan aldeko baldintzak** nabari diren unean lortu da, nahiz eta **moteltze zantzuak** egon, eta **interes tipoak apurka-apurka egonkortzen** ari direnean, nahiz eta negatiboan jarraitu. Gainera, hainbat gertakari geopolitikok **merkatuen lurrunkortasuna indartu** egin dute eta balantzetik kanpoko baliabideen balorazioak jaitsi egin dira.

Testuinguru honetan, urteko lehen bederatzi hilabeteetarako ezarri zituen helburuak lortu ditu Kutxabankek, beste behin **bezeroen negozioak izan duen bilakaera onari esker.**

### **Errekorra hipotekatan eta kontsumorako mailegutuan**

Hipoteka-mailegu berrien kontratazioa, berriz ere, maximotan kokatu da. Bilakaera positibo finkoa izan du azken lau urteetan, merkatuaren batez bestekoaren gainetik, Bankuak lanean diharduen ia lurralde guztietan.

Taldeak etxebizitzaren erosketara bideratzen duen finantzaketa % **21,6** hazi da, urteko lehenengo bederatzi hilabeteetan, **14.500etik gora kontratu berri** gauzatu baitira. **Hedapeneko eta Andaluziako sareen** bilakaera onak lagundu dio hazkunde horri.

Gauzak horrela, Kutxabankekin sendotu egin du Euskadin duen lidergo historikoa, izan ere, **merkatu-kuota** hazi egin da, berriz ere, % **37,7**an eta % **38,4**an Kordoban.

Hirugarren hiruhilekoaren amaieran **Kutxabank Kredit**-ek gauzatutako finantzaketak % **20,9ko igoera** izan du, 2017ko epealdi berarekin alderatuta, eta **358 milioi** eurora iritsi da. Horrela, mota horretako maileguen saldo bizia, argi eta garbi kokatu da krisiaren aurreko mailetan, **1.000 milioi** euroko langa gaintu baita. Hazkunde hori kreditu pertsonala ematean erabiltzen den ikuspegi arduratsu batetik lortu da, eta hori, **zorrotik duen % 1etik beherako berankortasun-tasan** islatzen da, Espainiako finantza-sektorearen batez bestekoarekin oso azpitik.

Erakundeak duen **agenda digital biziak** ere lagundu egin dio bilakaera horri, izan ere, irtenbide teknologiko berriak abiarazi ditu, urruneko bankaren erabilera erraztera bideratuak.

**'Flexibuy' erosketen ordainketa atzeratzera bideratu den zenbatekoan % 55eko** igoera gertatu da, eta hori azaltzeko, hain zuzen ere, teknologia berrien erabilera jo behar da. Gainera, Kutxabanken bezero den merkataritza sektorearen dinamismoak eta salmenta bolumenean izan duen igoerak % **29** bultzatu dute saltokietan bertan, **'Saltegi Kredituaren'** bitartez, gauzatutako finantzaketa.

Eragile horiek guztiek lagundu diote **xehekako kreditu inbertsioari, hazkunde finkoko bost hilabete** jarraian izan ditzan.

### **Hirugarren kudeatzailea erakartze garbitan**

Negozio sareetako **administratutako baliabideen** erakartze erritmo onari eutsi dio Kutxabankekin, % **4,3** egin baitu gora, **59.412 milioi** eurora iritsi arte.

Merkatuen hegazkortasun handiko testuinguruan eta balantzetik kanpoko baliabideen balorazioan duen eragina kontuan izanda, **ageriko aurrezkia % 12** hazi da, % **0,9 aurreikuspen produktuak** eta % **3,9 inbertsio-fondoak**. Hirugarren hiruhileko honetan, Kutxabank Gestión **hirugarren kudeatzaile handienaren** postuan kokatu da **zuzkidura garbitan** inbertsio fondoetan, **533 milioi** euroko balioa duten sarrera garbiak izan baititu irailera arte.

Kutxabankekin erantzun egin die bezero dituen ETE-en **inbertsio produktiboen** finantzaketa beharrezane, eta **1.832 milioi** euro izan dira orotara, 2017an baino % **10** gehiago. Bere aldetik, **aktibo zirkulatuaren** finantzaketa eragiketarak, enpresa

negozioaren bilakaerarekin zuzenean lotuta, % **12,6** hazi dira, % **13ko deskontu komertzialarekin**, eta % **10** hazi da **kanpoko finantzaketa** arloko jardueretarako finantzaketa.

**Aseguruen negozioak** ohiko ahalmenari eutsi dio, eta **86 milioi** euroko ekarpena egin dio emaitza-kontuari, % **12 gehiago**. % **37ko** igoera izan da irailean **metatutako primetan**, eta **105.000tik gora poliza berri** sinatu dira urtean zehar.

### **Marjina guztiak positiboan**

Marjina nagusiek izan duten bilakaerak erakusten du bezeroekiko negozioak 'abiadura egonkorra' lortua duela, nahiz eta finantza-sarreraren portaerak interes negatiboen jarraipenarengatik baldintzatua jarraitzen duen.

**Interesen Marjinak** egonkor segitzea lortu du, eta erakundearen aurreikuspenak bete egin ditu, **416,3 milioi** eurotan kokatu baita. Banka komertzialaren bilakaerak komisioetan %**3,5eko** igoera sortu du. Honela, **Oinarriko Marjina 706,9 milioi** eurora heldu da eta era jasangarrian %**1,5** hazi da.

**Dibidenduen eta baliokidetasunen** atalean jazo den %**9,1eko** hazkundeak **Marjina Gordina** gora bultzatu du, eta **844,1 milioira** iritsi da, %**2,8** gehiago.

Aurreko hiruhilekoetan bezala, **Administrazio Gastuek** sumatu hobekuntza nabarirako joerari eutsi diote, %**5,2** jaitsi dira, **pertsonaleko gastuak** %**3,7** txikituta eta %**8,6** **gastu orokorrak**. Honekin guztiarekin, **Ustiapen Marjinak** %**14,7ko** bilakaera positiboa izan du.

Saneamenduetarako eta ohiko zuzkiduretarako egon den behar txikiagoak, epigrafe hau **145,8 milioi** eurora arte murriztu du, Taldearen mailegu-zorroak duen kalitate handiaren eta bilakaera onaren ondorioz.

**Zergen aurretik lortutako irabazia 323 milioi** eurokoa izan da, iaz garai berean baino %**47,7** gehiago. Zergen pisua 68 milioi eurora arte handitu ondoren, **Kutxabank Taldearen irabazia 254,1 milioi** eurotan kokatu da, %**10,1** gehiago.

### **Berankortasuna oinarriko 88 puntutan hobetu da**

Taldearen berankortasun maila alorreko txikienetakoa da, aurtan **oinarriko 48 puntu hobetu** baita. Berankortasuna, beraz, %**4,41ean** kokatu da, iaz baino oinarriko **88 puntu gutxiago**. Sustapeneko negozioaren arriskuari lotutakoa aintzat hartu gabe, berankortasun ratioa %**3,6an** gelditzen da.

Hobekuntza honetan lagungarria izan da zalantzazko aktiboen murrizketa, 2018ko lehen

hilabeteetan **197 milioi** eurotan txikitu baitira, eta **426 milioi** eurotan iazko irailarekin alderatuta.

Errentagarritasuneko ratio nagusiek Taldeak jarritako aurreikuspenen arabera hobetzen jarraitu dute, eta negozioaren bilakaera onak eta banka-aldagarriek bultzatuta. **ROE %6,30**ean kokatu da (2017ko urte amaieran baino oinarriko 27 puntu hobea), **ROTE** indizea **%6,77**koa da, eta **%0,56**koa **ROA**. Azkenik, **eraginkortasun ratioa %57,5**ekoa izan da.

Kutxabank Taldeak kalitate goreneko (**CET1**) kapitalari dagokionez alorraren buruan amaitu du hiruhilekoa, indize hau **%16tik gorakoa** baita. Egoera honetan, aurki EBC-k plazaratuko dituen estres azterketen emaitzei konfiantza handiz egin ahal izango die aurre. Orain arte, test hauetan aurkako balizko egoerari aurre egiteko ahalmen handienetakoa duten erakundeen artean kokatu da beti.

### Kutxabank Taldearen emaitzak, 2018ko hirugarren hiruhilekoa

Milioi euro	2018ko iraila	%Δ
Interesen Marjina	416,3	0,1
Komisio garbiak	290,5	3,5
<b>Oinarriko Marjina</b>	<b>706,9</b>	<b>1,5</b>
Dibidenduak eta baliokidetasunak	47,4	9,1
Finantza erakigeten emaitzak (*)	9,2	-12,0
Beste Ustiapen Gastuak	80,6	13,9
<b>Marjina Gordina</b>	<b>844,1</b>	<b>2,8</b>
Administrazio Gastuak	-447,2	-5,2
Amortizazioak	-39,5	3,2
<b>Ustiapen Marjina</b>	<b>357,4</b>	<b>14,7</b>
Saneamenduak eta narriadurak	-145,8	-62,2
Partaidetuen emaitzak eta besteak	111,4	-61,9
Zergak eta bestelakoak	68,8	n.s.
<b>Taldearen emaitza</b>	<b>254,2</b>	<b>10,1</b>

(\*) Bestelako irabaziak eta galerak atalean birsailkatu dira partaidetuen balorazioen edo salmenten emaitzak, konparazioa errazteko 2018an IFRS9 irizpideak ezarri ostean.